

AKTA

UDAL OSOKO OHIKO BATZARRA

Udal-Osoko batzarra bildu da:

Eguna: 2025/03/06

Ordua: 10:00-ak

Tokia: Udaletxeko Areto Nagusian

Bertaratuak:

Alkatea: Joana Mendiboure

Zinegotziak:

EHBildu

Agustin Lekuona Irastorza

Olaia Lasa Olaziregi

Oihana Irastorza Gonzalez

Aiako Harria Gaztelumendi Gaztelumendi

EAJ-PNV

Janire Mitxelena Lekuona

Rafael Bergaretxe Urdampilleta

Idazkaria:

Xabier de la Mota Vazquez

Ezin etorria adierazi dute:

Garazi Urdampilleta Astibia

Ibon Mitxelena Fernandez

Nora Velez del Burgo Zalakain

Jexux Olaziregi Bagües

Edorta Fernandez Etxepeteleku

Ekain Susperregi Ibarguren

Jon Albisu Mendiburu

Ibintza Iragorri Iriarte

Maitane Larruskain Agirre

Iñaki Arbelaiz Mitxelena

AZTERGAIK:

- 1- Oiartzungo udal eraikinen garbiketa zerbitzuaren kontratuaren esleipena onartzea.

Esan-eginak eta erabakiak

OIARTZUNGO UDAL ERAIKINEN GARBIKETA ZERBITZUAREN KONTRATUAREN ESLEIPENA.

Alkateak idazkariari hitz ematen dio, premiazkoa zerbitzua denez eta hilabete amaieran kontratua amaitzen denez, beharrezkoak diren dokumentazioa aurkeztu eta tramiteak burutu ahal izateko ez ohiko deialdia egin da, behin betiko esleipena onartzeko.

Behin behineko erabakia landu zen Udal osoko batzarrean eta orain behin betiko esleipena onartuko da.

Hiru enpresa aurkeztu ziren lehiaketara, tartean orain zerbitzua ematen ari den GARBINDU LIMPIEZAS Y MANTENIMIENTO S.L. Lehiaketan aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, kontratazio mahiak proposamena egin zion alkateari adierazten GARBINDU LIMPIEZAS Y MANTENIMIENTO S.L enpresa dela zerbitzua emateko aproposena, horiek horrela, GARBINDU LIMPIEZAS Y MANTENIMIENTO S.L. enpresari esleitzea erabaki zuen alkateak.

Enpresak eskatutako dokumentazio tekniko guztia aurkeztu du, ezarritako bermea ere ordaindu du.

Beraz, guzti hau kontutan hartuta Lurraldeko batzordeak 2025eko martxoaren 5ean egindako bilkuran emandako aldeko diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, aho batez, hartu du honako:

AKORDIOA

Lehen.- Esleitzea GARBINDU LIMPIEZAS Y MANTENIMIENTO S.L. enpresari Oiartzungo udal eraikinen garbiketa zerbitzuaren kontratua,, honako prezio baldintzetan:

- Ohiko garbiketa zerbitzua: urteko 670.340 euro (BEZa barne)
- Beilatokiko garbiketa zerbitzua: zerbitzuko 55,66 euro (BEZa barne)
- Garbiketa zerbitzu berezia: orduko 30,25 euro (BEZa barne)

Esandako prezioetan kontzeptu guztiak barruan daudela ulertu behar da, eta hor gastu guztiak, zergak, arlo fiskaleko edozein tasa eta ordainketak sartzen dira, baita kontratistaren etekin industrial ere.

Gastua 2024ko aurrekontuko honako partiden kontura izango da:

- 1 0102.227.920.00.01.2025
- 1 0103.227.929.00.01.2025
- 1 0212.227.153.40.10.2025
- 1 0221.227.170.00.04.2025
- 1 0223.227.172.10.01.2025
- 1 0311.227.323.00.01.2025
- 1 0311.227.324.00.01.2025
- 1 0313.227.323.00.01.2025
- 1 0321.227.335.00.10.2025
- 1 0331.227.334.00.02.2025
- 1 0332.227.330.00.10.2025
- 1 0341.227.230.00.01.2025
- 1 0351.227.337.20.10.2025
- 1 0352.227.342.00.01.2025
- 1 0361.227.432.00.01.2025

Bigarrenena.- Kontratuaren formalizazioa ebazpen honen jakinarazpena lizitatzailerik bidali eta 15 egun balioduneko epea igaro ondoren egingo da.

Hirugarrena. Ebazpen honi dagozkion jakinarazpenak eta argitalpenak egitea, SPKLren 151.artikuluarekin adostasunean.

Eta beste aztergairik ezean, lehendakariak amaitutzat eman du batzarra, 10:10ak direnean. Idazkariak batzarrari dagokion agiri hau idatzi eta alkateak irakurri eta ontzat eman ondoren, biek izenpetu dute, bat etorritik Toki Erakundearen Antolamendu, Jardunbide eta Araubideari buruz indarrean dagoen Erregelamenduaren 110.2 artikuluan agindutakoarekin. Eta horren guztiaren fede, nik, idazkaria naizen honek, ematen dut.

Alkatea



Sin.: Joana Mendiboure

Idazkaria



Sin.: Xabier de la Mota

